

LEGE ZARRA (FORUA) V: EPAIKETAN ZIURTASUNA

Askasuna da giza-eskubideen artean geien aldarrikatzen dana, baiña aldarriak gitxi balio dabe, bakoitza izan daikezan erasoetan babestuta ez ba'dago. Orixe da arako «habeas corpus» deritxon anglandarren eskubideak diñoana (1.669n. urtekoa): Baitua dan edonor erregearen aurrera eroana edo diru-aurreratze bat eginda askatua izateko eskubidea. Eta bizkaitarren foruak «habeas corpus» orrek baiño ziurtasun aundiagoak daukaz.

ESPETXERATZEKO AGINDUA

Orduko baitzailleai (prestamerua ta merinoa ziran oneik) debekatu egiten jake iñor baitzea, aurretiaz epaikariak orretarako baimena emon barik, gaiztake-ria, egiten dagoala arrapatu ezik. Ori zan foru zarraren agindua. Baiña Foru Barriak geiago diño: epaikariak berak be espetxera iñor ezin leikela eroan aurretiaz ogei ta amar egunetan Gernika'ko zugazpean foru-deia egin barik. Dei au eskribau baten aurrean egiten zan zugazpean eta agiria idazten zan. Deia baitzekoa zanaren parroko atean ipinten zan, domekaz, meza-nagusi-orduan, eta deitua bera aurkeztu eitekean, berak nai eban espetxean ogei ta amar egunen barruan, eta epe ori bete-arte iñork ezin eikean baitu. Epea amaitu eta agertu ez ba'zan, esibarruan lez geratzen zan eta edonork eukan eskubidea baitzeko.

Foru barriak dana onartu eban baiña lapurretak ziranean foru-deia egin barik baitu eikela esan eban: Lege ori foru-barruan aundiena ta onena zala, epaikari ano, zorrotz eta itunai eta ariñegi jokutzen ebe-nai galgea ipinteko. Beti beteteko agindu eban.

Foru Barriak foru-deia eskatzen dau edozein bizkaitarren aurka jokatzeko aurretiaz bete bear dan baldintza lez, baiña salbuespenak zabaldu egiten dauz: gaiztakeria egiten arrapau diranak, erbestekoak diranak, sorgiñak eta aztiak (au aldi aretako ardura okerra zan) eta emakume bat izorratzen ebenak.

BESTE EPAIBIDEKO ZIURTASUN BATZUK

Ziurtasunik onena, oiñazeak debekatzen dauzana da. Eta, gaurko lege askok diñoena diño askoz

aurrerago: Bere burua zaintzeko epaigaiari emoten jakozan ziurtasunak dira. Lenengo zabalkundeari buruz. Orduan epaiketa-barriak isillean eukiten ziran Europa guztian eta orrelan epaigaia babes barik geratzen da, bere aurka zer dagon jakin barik. Bizkai'ko Foruak auxa agintzen dau: Epai-gaia agertzen danean, berari emoteko epaibide osoaren aldakia: bere aurka esan dana, lekukoak esan dabena eta izenak. Salakuntza egiten danean, gaia agertuko da, baiña izenik esan barik. Gaiztakeria egin dala ziur jakin-arte, ezin leike iñor salatu. Gaurko lege askotan be ez da agertzen olako garantirik. Gauza bategaitik salatuak izan diranak, ori erabagi arte ezin leikez beste salakuntza bategaz salatu.

OLAZAR'tar MARTIN'ek.

**AZKENENGO ARRAIÑA JATEN
DOZUNEAN, AZKENENGO LANDA-
REA IGARTZEN DANEA,
ORDUAN, BAI, ORDUAN JAKINGO
DOZU DIRUA EZ DALA JATEN.**

AMERITAKO INDARREN ESALDIA



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**